

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2024KO APIRILAREN 26KO BILERAREN AKTA

2024ko apirilaren 26ko 9:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Bestalde, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakariak deituta, honako kide hauek bildu dira: Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea, Osasuneko sailburua, lehendakaria; **José Luis Quintas Díez**, Osasuneko sailburuordea, lehendakariordea; Nerea Urien Azpitarte, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **Hernando Lacalle Edeso**, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea, batzordekidea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde**, Aurrekontu zuzendaria, batzordekidea.

Presidenteak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, presidenteak deitutako bilkura egiteko eta alde zuzenetik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, presidentearen baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusi **María Rosa Pérez Esquerdo** andrea, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Susana López Altuna** andrea (idazkari gisa).

## GAI-ZERRENDA

**LEHENENGOA.**– Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 14ko 663/2024 Ebazpenaren; martxoaren 21eko 690/2024 Ebazpenaren; martxoaren 4ko 657/2024 eta martxoaren 14ko 661/2024 Ebazpenaren betearazpena eteteko eskaera-errekurtsoei buruzko akordio-proposamenak egitea, eta, hala badagokio, onartzea.

Guztira, 8 erabaki-proposamen aurkeztu dira, gora jotzeko 8 errekurtsori dagozkienak. Errekurtso horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka jarri dira, hain zuzen ere, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzeko eta destinoak esleitzeko ebazpenen aurka, eta ondoren adierazten diren kategorietan 18-19 EPEan estatutupeko langile finko izendatzeko ebazpenen aurka.

- Erizaina
- Zeladoreak
- ZERBITZUETAKO LANGILEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 117. artikulua, betearazpena eteteari buruzkoak, argi ezartzen du errekurtsu bat jartzeak ez duela etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena xedapenen batean bestelakorik ezarri ezean.

Era berean, xedatzen du ebazteko eskumena duen organoak ezen, eteteak interes publikoari edo hirugarrenei eragingo liekeen kaltea eta errekurritutako egintzaren berehalako eraginkortasunaren ondorioz errekurtsogileari eragingo litzaiokeen kaltea behar bezala haztatu ondoren, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten ahal izango duela, ofizioz edo errekurtsogileak eskaturik, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- A) Betearazpenak kalte erreparaezinak edo erreparagaitzak ekartzea.
- B) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

Kasu honetan, errekurtsogileek, ez dituzte behar beste frogatu aipatutako inguruabarrak, eta, horrez gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 117. artikuluan ezarritako haztatze-aukerei dagokionez, etenaldiak interes publikoari edo hirugarrenei eragingo liekeen kaltearen eta errekurritutako lehen egintzaren berehalako efikaziak errekurtsogileei eragingo liekeen kaltearen artean, adierazi behar da eskatutako etenaldiak, batetik, kalte larria eragingo liokeela interes orokorrari, Administrazio Publikoak bere plantillako destino hutsak betetzeko duen betearazte-ahalmenari eragingo litzaiokeelako, eta bestetik, hautaketa-prozesuko parte-hartzaileei

eragingo liekeela, deialdian sartutako destinoa betetzeko aukerarik ez dutelako. Hala, kalte horiek larriagotzat jotzen dira errekurtsogileek alegatutako bidegabekeriak baino.

Aurkaratutako administrazio-egintzak etetea salbuespenezko neurria da, egintza horien berehalako baliozkotasun- eta efikazia-presuntzioaren aurrean. Aurkaratutako administrazio-egintzen etetearen alegazio hutsa ezin da eskari nahikotzat hartu, administrazio publikoaren funtzionamendua geldiaraz baitezake administrazio-errekurtsoak jartzearekin batera aipatze hutsarekin.

Aurrekoa oinarri hartuta, hautaketa-prozesuaren bermeak eta Funtzio Publikoan sartzeko oinarrizko printzipioak gordetzeko, ezin da erabaki errekurtsogileak eskatutako etenaldiaren alde.

Aurkeztutako erabaki-proposamenetan eteteko eskaera baino ez da ebazten, eta jarritako gora jotzeko errekurtsoen funtsa ebatzi gabe dago.

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onetsi dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

#### **BIGARRENA. – Informazioak, eskaerak eta galderak.**

Kontseiluburuak eskatuta, Kontseiluko idazkariak Gasteizko 1. Epaitegiaren 2024ko apirilaren 16ko Epaiaren berri eman du (9/2023 Oinarrizko Eskubideen prozedura berezia); demandatzailea SATSE dela argitu du eta 20-21-22 EPEko eta Egonkortzeko (Zerbitzuen Balorazioa eta Prestakuntza) prozesuetan izan dezakeen eragina azaldu du.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2024ko apirilaren 26ko 9:30ean.



**Sin.- Susana López Altuna**  
Idazkaria



**Sin.- Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea**  
Presidentea  
Osasun sailburua  
O.E.

